

## **2006-05-09ko OHIZKO UDALBATZA**

Iruran, bi mila eta sei urteko maiatzaren bederatzian, arratsaldeko 20:00etan, udaletxeko Udalbatza-aretoan, ohizko batzarra egin du Udalbatzak, Marimi Ugalde Zabala alkatea buru duela.

Agustin Zubeldia Iraola, M<sup>a</sup> Jesús Otaño Zumeta, Jose Luis Olano Zubeldia eta Gregorio Lasa Etxezarreta zinegotziak izan dira bileran.

Aitor Lasa Olalde eta Eugenio Loidi Garmendia zinegotziak ez dira bertaratu eta ez etortzeagatik desenkuzatu dira.

Idazkari-lanak Miguel Antonio Arrizabalaga Brusinek egin ditu.

Alkateak bilkura publikoa ireki du; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak agindutako gutxienezko partaide-kopurua bertaratu baita.

### **1. PUNTUA**

#### **AURREKO AKTAK ONARTZEA (06-04-04).**

2006ko apirilaren 4ko Ohiko Udalbatzaren akta-zirriborroaren berri eman dute.

Alkateak proposatu du 7. puntuko azken paragrafoa aldatzea (akordioa onartzea, hala badagokio, trafikoko isunen politika dela-eta); aldaketa onartu egin dute, beraz honela geratuko da:

“Beraz, gaia erabaki gabe utzi dute eta konpromisoa hartu dute akordio proposamen bat aurkezteko hurrengo Udalbatzan”

Aldaketa egin eta gero, akta-zirriborroa onartu dute aho batez.

### **2. PUNTUA**

#### **ALKATETZAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

Aho batez erabaki du Udalbatzak Alkatezaren dekretu hauen berri jaso izana adieraztea:

-06/03/31ko 46/06 Dekretua: Construcción y Gestión de Servicios S.A.U. enpresak jarritako fidantza itzultzea.

-06/04/05ko 47/06 Dekretua: Fischer Zirkoa jartzeko baimena ematea.

-06/04/10ko 48/06 Dekretua: Ralph Fischer-i jarritako fidantza itzultzea.

-06/04/11ko 50/06 Dekretua: Arau Subsidiarioetako 14 zonaldeko urbanizazioaren behin betiko onarpena.

-06/04/11ko 51/06 Dekretua: Goizargi Oruesagastiri etxeko fatxadak margotzeko baimena.

-06/04/11ko 52/065 Dekretua: Xabier Karrerari erreforma batzuk egiteko baimena

-06/04/11ko 53/06 Dekretua: 24.581,75 €-ko kopurua duen martxoko fakturen zerrenda onartzea.

-06/04/21ko 54/06 Dekretua: 379,58 € likidatzea Naturgas Energia enpresari.

-06/04/21ko 55/06 Dekretua: 812,15 € likidatzea Naturgas Energia enpresari.

-06/04/26ko 56/06 Dekretua: 2006ko enplegu sustapenerako obra proiektuak onartzea.

-06/04/26ko 58/06 Dekretua: Leticia Aristi kontratatzea

-06/05/02ko 59/06 Dekretua: Bixente Otegi 500 €-ko fidantza itzultzea.  
-06/05/02ko 60/06 Dekretua: Bixente Otegi 1000 €-ko fidantza itzultzea.  
Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

### 3. PUNTUA

#### **UDAL HONEN 2006-KO JARDUNALDI EKONOMIKOAREN AURREKONTU OROKORRA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Udalaren Aurrekontu Orokorraren berri eman dute. 2006ko jarduera ekonomikorako aurrekontua da; udalaren berezko aurrekontua da soilik. Korporazioko lehendakariak aurkeztu du, udal honetako idazkaritza-kontuhartzaitzak informatuta. Aurrekontuari erantsi zaio Aurrekontua Betearazteko Udal-araua.

Aurrekontu Orokorra aurrekontu eta kontabilitate gaien inguruan indarrean dauden legeen arabera osatu da, hala ezartzen baitu abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen aurrekontuei buruzkoak. Haserako defizit gabe agertu da eta korporazioko udalbatzaren osoko bilkurari aurkeztu zaio onartu, itzuli edo zuzen dezan.

Horren aurrean, aurretik bere edukiaren inguruan azalpenak emanda eta eztabaida izanda, Udalbatzak ondorengo erabaki du aho batez, aipatutako apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuko 18. artikuluan eta ondorengoetan erabakitakoa jarraituz:

Lehen.- Irurako Udalaren 2006 urteko Aurrekontu Orokorra behin-behinean onartzea. Udalaren berezko aurrekontua da soilik. Gastu eta sarreraren egoera atalka laburtuz gero, honela gelditzen da:

#### SARREREN EGOERA

1. ATALA.- ZUZENEKO ZERGAK: .....	323.500
€	
2. ATALA.- ZEHARKAKO ZERGAK:.....	140.000 €
3. ATALA.- TASAK ETA BESTE SARRERAK:.....	153.200 €
4. ATALA.- TRANSFERENTZIA ARRUNTAK: .....	692.500 €
5. ATALA.- ONDAREZKO SARRERAK: .....	9.000 €
6. ATALA.- INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA:..	74.606,27 €
7. ATALA.- KAPITALAREN TRANSFERENTZIAK:.....	30.000 €
8. ATALA.- FINANTZA-AKTIBOAK: .....	
9. ATALA.- FINANTZA-PASIBOAK: .....	1.000 €
GUZTIRA: .....	1.523.806,27 €

#### GASTUEN EGOERA

1. ATALA.- LANGILEEN GASTUAK: .....	484.000 €
2. ATALA.- GASTUAK ONDASUN ARRUNTETAN, ZERBITZUAK:.	475.100 €
3. ATALA.- FINANTZA-GASTUAK: .....	2.000 €
4. ATALA.- TRANSFERENTZIA ARRUNTAK: .....	161.700 €
6. ATALA.- INBERTSIO ERREALAK: .....	369.006,27 €
7. ATALA.- KAPITALAREN TRANSFERENTZIAK: .....	23.000 €
8. ATALA.- FINANTZA-AKTIBOAK: .....	1.000 €
9. ATALA.- FINANTZA-PASIBOAK: .....	8.000 €
GUZTIRA: .....	1.523.806,27 €

Ez da berezko Aurrekontu Orokorra deskribatu, honen errepikatze hutsa

delako.

Honela, 2006ko jarduera ekonomikorako Aurrekontua Betearazteko Udalaraua onartu da.

Bigarrena.- Espedientea jendaurreko informaziorako jartzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuz hamabost egun eraginkorrez, erreklamazioak egin ahal izateko. Aurrekontua erabat onartutzat joko du udalak aipatutako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Behin betiko onartutako aurrekontu orokorra Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da atalka laburtua.

Behin betiko onartutako aurrekontuaren kopia bat bidaliko du udalak Gipuzkoako Foru Aldundira.

Hirugarrena.- Aurrekontua dagokion ekitaldian jarriko da indarrean, aurreko atalean aurreikusitako eran argitaratua izan ondoren.

Gainera, aurrekontuaren kopia bat eta bere modifikazioak jendearen eskura egongo dira informazioa izan dezaten, behin betiko onartzen den unetik jarduera bukatu arte.

Erabaki hau izapide-egintza da. Ez da egokia beraren aurkako errekurtsorik jartzea.

#### **4. PUNTUA**

### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, 2006-KO JARDUERA EKONOMIKORAKO IRURAKO UDALEKO LANGILEEN ETA LANPOSTUEN ZERRENDA.**

Langileen plantilla organikoa eta 2006ko jarduera ekonomikorako lanpostuen zerrendaren berri eman dute.

Udalbatzak onartzea erabaki du aho batez.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jar daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

#### **5. PUNTUA**

### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, "IRURAKO OSASUN ZENTRU BERRIAREN" OBRAREN KONTRATAZIORAKO BALDINTZA EKONOMIKO ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIA.**

Irurako Udalak hasi egingo ditu Pello Arrese-Igor kaleko osasun zentro berriari dagozkion obrak.

Proiektua Iñaki Arregi Garitano arkitekto teknikoak idatzi du.

Kontuan hartu behar ditugu ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegilean ezarritakoa, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bategina eta aplika dakizkiokeen gainerako arautegiak onartzen dituenak.

Ondorioz, hau erabaki du udalbatzak aho batez:

Lehenengoa.- Onartzea, Iruran osasun zentro berriaren proiektua.

Bigarrena.- Onartzea lanak egiteak eragingo duen gastua.

Hirugarrena.- Lanak prozedura irekiz esleitzeko enkantea argitaratzea eta hau arautuko duten administrazio-baldintzen zerrenda onartzea. Esleipenduna aukeratuko da eta lizitazio prezioa 141.127,33 € izango da.

Laugarrena.- Dagozkion iragarkiak argitaratzea esleitze-espeditari hasiera emanez.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren

aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

## **6. PUNTUA**

### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, TRAFIKO ISUNEN POLITIKARI BURUZKO AKORDIOA.**

Alkateak proposamen hau egin du:

Udal hau betidanik arduratu izan da titulartasuna duen udalerriko hiri-bideetako (kaleak, plazak, bideak...) trafikoaren eta ibilgailuen zirkulazioaren segurtasunaz.

Helburu horrekin onartu eta argitaratu zuen udalak 2003-04-11n Zirkulazioko Udal Ordenantza.

Halaber, ikusita zigortze-jarduera zein konplexua den, 2002-11-05ean erabaki zuen zigortze-jarduera Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzari eskuordetzea.

Salaketa jarduerari dagokionez, arau-hauste garrantzitsuenetara mugatu da udala:

- Ibilgailuak espaloietan, ibietan eta oinezkoen pasabidetan aparkatzea.

Azkeneko hilabetetan alkatetza honek hainbat kexa jaso ditu jarritako salaketen inguruan, salaketak jartzen dituztenak legalki gaituak ez daudela edo objetibotasun printzipiorik gabe jartzen dituztela argudiatuz.

Aztertuta, era berean, idazkari-kontuhartzaileak idatzitako legezkontasun-txostena.

Ondorengo erabakia hartzea proposatu dute:

Lehen.- Udal-zerbitzuek egindako salaketa-jarduera legezkotzat eta egokitzat hartzea berriro ere eta zigortze-jarduera Eusko Jaurlaritzari eskuordetzan emateari ere eustea.

Bigarrena.- Horretaz arduratzen den udaleko langileari babesa ematea eta bere objetibotasun-printzipioa eta gaitasun profesionala aitortzea.

Hirugarrena.- Herritarrei adieraztea trafikoko arauak errespetatu egin behar direla, gehienbat gutxieneko arau hauek, gure kaleetan ibilgailuen zirkulazioak nahaste-borrastea eragitea nahi ez badugu behintzat.

Eztabaidaren ondoren, Udalbatzak proposamena onartzea erabaki du. Aldeko 4 boto izan ditu, Marimi Ugalde alkatearena eta J.L. Olano, G. Lasa eta J.A. Zubeldia zinegotziena; M.J. Otaño zinegotziak, aldiz, aurkako botoa eman du.

M. J. Otaño zinegotziak adierazi du aurka bozkatu duela, uste duelako salaketak neutraltasun eta objetibotasunik gabe jartzen direla. Dena dela, gehiengoaren erabakia errespetatuko duela esan du eta bere helburua bete duela, hots, gaiari buruz eztabaidatzea eta bozketa egitea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

## **7. PUNTUA**

### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, AGENDA 21-EN DIAGNOSTIKOA.**

Irurako Udalak Agenda 21 burutzeko udal-taldean sartzten da. Hori dela eta, aurretik egin ditugu hainbat ikerlan, proposamen, eztabaida eta ekarpen, herriko erakundeekin, teknikoekin eta herritarrekin.

Dagozkion ekarpenak jaso ondoren, Irura iraunarazteko Diagnostikoa

deritzan dokumentua osatu dugu: Laburpena eta Ondorioak.

Beraz, Udaltzak onartzea erabaki du aho batez.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

#### **8. PUNTUA**

##### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUAREN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusita Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak bere jarduerak burutzeko egin duen diru-laguntza eskaera, Udaltzak aho batez erabaki du 300 €-ko dirulaguntza ematea eta ordaintzeari ekitea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

#### **9. PUNTUA**

##### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, HIZKUNTZA ESKUBIDEEN BEHATOKIAREN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusita Hizkuntza Eskubideen Behatokiak bere jarduerak burutzeko egindako diru-laguntza eskaera, Udaltzak aho batez erabaki du aurrerago aztertzeko uztea.

#### **10. PUNTUA**

##### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, HERRI URRATSEN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusita maiatzaren 14an Senperen egingo den Herri Urrats ekitaldiaren diru-laguntza eskaera, Udaltzak erabaki du aho batez 245 €-ko diru-laguntza ematea eta ordaintzeari ekitea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

#### **11. PUNTUA**

##### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, IBILALDIA 2006-REN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusita maiatzaren 28an Elorrioren egingo den Ibilaldia 2006 ekitaldiaren diru-laguntza eskaera, Udaltzak erabaki du aho batez 167 €-ko diru-laguntza ematea eta ordaintzeari ekitea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

#### **12. PUNTUA**

##### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ARABA EUSKARAZ 2006-REN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusita ekainaren 18an Armentian egingo den Araba Euskaraz 2006 ekitaldiaren diru-laguntza eskaera, Udaltzak erabaki du aho batez 167 €-ko diru-laguntza ematea eta ordaintzeari ekitea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren

aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

### **13. PUNTUA**

#### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, KILOMETROAK 2006-REN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusita urriaren 1ean Oiartzunen egingo den Kilometroak 2006 ekitaldiaren diru-laguntza eskaera, Udalbatzak erabaki du aho batez 167 €-ko diru-laguntza ematea eta ordaintzeari ekitea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

### **14. PUNTUA**

#### **GALDERAK ETA ESKARIAK.-**

Galdera eta eskarien tartean honako gaiak aztertu dituzte:

a) Marimi Ugalde alkateak adierazi du aurrekontu bat aurkeztu dutela herrian euskararen erabilerari buruzko galdeketa egiteko.

Jose Agustin Zubeldia zinegotziak esan du UEMAk ere egiten duela horrelakorik.

Jose Luis Olano zinegotziak esan du ikastolak ere aldiro egiten duela.

Beraz, aurrerago aztertzeke utzi dute.

b) Marimi Ugalde alkateak adierazi du Foru Aldundiko Basozaintzako arduradunarekin hitz egin duela, Tolosako Atxipiaga aldean egiten ari diren egur-moztea dela-eta (Irurako pistetatik garraiatzen dute), eta aholkatu diola idatzi bat bidaltzeko egur-mozteari buruzko datu batzuk argitzeko eskatuz.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, 22:05ean amaitu da bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.